

Goirizelaiak dio oso larriak direla Barakaldon PSEri egotzi delituak

Alderdi horrek herritarrei iruzur egin diela dio HBko kideak



MIKEL MARTINEZ

Jone Goirizelaia eta Ibon Arbulu, atzo, Barakaldoko zinegotziekin batera prentsurrekoan.

Itzi Uriarte / Bilbo

Carlos Pera, Jesus Maria Gonzalez Suances, Jesus Maria Rodriguez Orrantia eta Ferrovial enpresako hiru pertsonaren aurka Herri Batasunak aurkeztutako kereilaren gainean mintzatzeko, prentsurrekoa eskaini zuten atzo alderdi horretako kideak. Jone Goirizelaia adierazitakoaren arabera, oso larriak dira PSE-EE alderdiari egotzitako delituak eta, gainera, datu asko daude hori frogatzeko.

HERRI BATASUNAKO zinegotziak Jone Goirizelaia abokatuarekin eta Ibon Arbulu HBko mahaikidearekin agertu ziren prentsurrekoan, Barakaldoko PSE-EEko ar-

duradunen aurka jarritako kereilaren xehetasunak emateko asmoz. Jone Goirizelaia azaldu zuenez, Barakaldoko 3. Argibide Epaitegiak delitu hauek egin ote diren ikertuko du: informazio pribilegiatua eman, influentzia trafikoan aritu, diru publikoa bidegabe erabili eta kohetxo egin.

HBk kereila aurkeztu zuen PSE-EEko arduradun horien eta Ferrovial enpresako hiru arduradunen aurka, 1997an Barakaldoko garbiketa zerbitzua hartzeko lehiaketan irregularitasunak izan zirelakoan. Zehazki kaleen garbiketa hartzeko lau enpresa lehiatu baziren ere, batek puntuazio-ko %100 bete zuela nabarmendu zuen Goirizelaia.

Bestalde, Redondo, Buesa eta PSE-EEko beste buruki-deak HBri moral eta etika lezioak emateko inor ez direla

adierazi zuen Joxe Goikoe-txea zinegotzi abertzaleak, eta gaineratu soldata baino zerbaite gehiago galduko dutela. «Beldur handia diote beren besaulkiak galtzeari; zeren, besaulkiak galtzen badituzte, ez dute soldata soilik galtzen, beste negozio asko galtzen dituzte», esan zuen Goikoe-txea. Roldan, Urralburu, Borrell, Max Center, Osakidetza eta beste ustelkeria kasu ospetsu batzuei «Peraren taldearena» gehitu behar zaiela adierazi zuen HBko zinegotziak.

Barakaldoko alkateak, berriz, HBren hauteskunde maniobraren aurkezpena eta akusazio guztiak gezurtatu egin zituen. Carlos Peraren ustez, «HBk ez du bilatzen gauzen argipena PSE-EEren deskreditoa baizik».

Hamabosna urteko kartzela zigorra eskatu du fiskalak sei gazterentzat

■ Ustez tren geltoki bi erre zituztelako egin du eskaera hori Entzutegi Nazionalan

Efe / Madril

LAUDION bi tren geltoki erre-tzeaz akusatuta, 90 urteko kartzela zigorra eskatu du Entzutegi Nazionalako fiskal Olga Sanchezek sei gazterentzat; 15 urte bakoitzarentzat, hain zuzen ere. Terrorismo delitua egotzi die akusatuei fiskalak.

Fiskalak aurkeztutako

behin behineko idatzian dio 1996ko abenduaren 31ean Ricardo Casero, Francisco Abad eta Aitor Goikoe-txea Bilboko zerbitzu estazio-ra joan zirela erregaia erostera. Ondoren, fiskalaren arabera, denda batera joan ziren behar zituzten gauzak erostera. Hiru horiek hitzordua zuten fiskalak dienez Zigor Gorostiaga, Igor Azuaga eta

Jose Ignacio Garciarekin Laudiora joateko. Horietako hiru Aretako geltokira joan ziren eta beste hirurak Laudioako geltokira. Su eman zieten Laudioako eta Aretako geltokiei, fiskalak diotenaren arabera, 35 milioi pezetako kalteak eraginez. 15 urteko kartzela zigorrak gain fiskalak eskatu du eragindako kalteen ordaina.